

<p>MENDI IREKIAN LURRAK BANATZEA ARAUTZEN DUEN AKORDIOA, NPBn DEKLARATZEKO</p> <p>Testu honen xedea da hektarea komunalak pertsona edo sozietate eskatzaileei nola banatu arautzea, Nekazaritza Politika Bateratutik eratorritako dirulaguntzak izapidetzean deklaratu daitezzen.</p>	<p>ACUERDO REGULADOR DE REPARTO DE TIERRAS EN MONTE ABIERTO PARA SU DECLARACIÓN EN LA PAC</p> <p><i>El objeto del presente texto es la regulación del reparto de hectáreas comunales a las personas y-o sociedades solicitantes a efectos de su declaración en la tramitación de las subvenciones derivadas de la Política Agraria Común.</i></p>
<p>1.- ONURADUNAK:</p>	<p>1.- BENEFICIARIOS:</p>
<p>Onuradunak izateko, Baztango ustiategien erroldan agertzea derrigorrezkoa izanen da. Era berean, Baztango biztanleen erroldan bi urteko antzinatasuna bete beharko du eskatzaileak. Sozietateen kasuan, horien helbide fiskala Baztango udalerrian egotea ezinbertzekoa izanen da.</p>	<p><i>Serán beneficiarias únicamente las personas solicitantes que figuren en el censo de explotaciones de Baztan y consten empadronadas en el Valle con antigüedad mínima de dos años.</i></p> <p><i>En el caso de las sociedades, será requisito que la dirección fiscal de la misma esté en el municipio de Baztan.</i></p>
<p>2.- HEKTAREAK ESLEITZEA.</p>	<p>2.- ADJUDICACIÓN DE HECTÁREAS.</p>
<p>Banaketa-proposamenak haztaper positiboa dakar lehen instalazioko proiektua duten abeltzain gazteentzat, bai eta sektoreko profesionalak diren lur-eskatzaileentzat ere, ATPak, lehenatasunezko ustiategiak eta gazteak positiboki haztatuz edo ponderatuz.</p>	<p><i>La propuesta de reparto supone una ponderación favorable a los jóvenes ganaderos con proyecto de primera instalación, así como a los solicitantes de tierras que sean profesionales del sector, ponderando positivamente a los ATP, a las explotaciones prioritarias y a los jóvenes.</i></p>

<p>Horretarako, haztapen-sistema bat proposatzen da, honela:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez-profesionalak: oinarria - ATP (ez lehentasun): oinarria + % 10 - Lehentasunezko ust.: oinarri + % 20 - 1. instalazioaren ust: oinarri + % 70 <p>Sozietateen kasuan, dagokion haztapena kalkulatu da, bazkide bakoitzari adierazitako taula aplikatuta.</p>	<p><i>Para ello, se propone un sistema de ponderación en los siguientes términos:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>No profesionales: base</i> - <i>ATP no prioritarios: base + 10%</i> - <i>Explot. prioritaria: base + 20%</i> - <i>Explot. 1ª instalación: base + 70%</i> <p><i>En el caso de sociedades, se calculará la ponderación correspondiente aplicando los términos indicados a cada una de las personas socias.</i></p>
<p>3.- PROZEDURA.</p>	<p>3.- PROCEDIMIENTO.</p>
<p>NPB kanpaina hasi aurretik, NPBren laguntza eskatu duen pertsonaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da udaletxean. Aldez aitzinetik, garaiz eta modu anitzak erabiliz, epe hori jakinaraziko da.</p> <p>Udalak erantzukizunpeko adierazpenaren eredu bat jarriko du NPBko dirulaguntzak eskatzen dituzten pertsona eta sozietateen eskura. Bertan, eskatzaile bakoitzak adieraziko du zenbat abelburu, zein motatakoak eta non alhatzeko asmoa duen, hau da, Baztango bazkalekuetara (Erdiz, Belate, Lizartzu) edo/eta larrera eramateko asmoa duen.</p> <p>Aitorpena sinatzean, konpromisoa hartzen du bai abere kopuruari dagokionez baita bere gain hartzen dituen bete beharrezko hainbat aferei buruz ere.</p>	<p><i>Previo al inicio de la campaña PAC, en fechas que se publicarán y darán a conocer con tiempo suficiente a través de diversos cauces, se deberá presentar en el Ayuntamiento la declaración responsable de la persona solicitante de la ayuda PAC.</i></p> <p><i>El Ayuntamiento pondrá a disposición de las personas y sociedades solicitantes de subvenciones PAC, un modelo de declaración responsable en la que cada solicitante declarará el número y tipo de cabezas de ganado que llevará a pastar bien a los cerrados comunales (Erdiz, Belate, Lizartzu) bien al monte abierto.</i></p> <p><i>Al firmar la declaración, se compromete a cumplir lo indicado tanto en lo relativo al número de ganado como en obligaciones que contrae.</i></p>

<p>Hala nola azienda larrera eramateko aurreikusitako dataren berri emateko, deklarazioan adierazitakoa aldarazten duten arrazoi guztiak jakinarazteko (gorabehera sanitarioak, laneko bajak...), osasun-betebeharrak egunean edukitzeko edo deklarazio horretan agertzen diren beste alderdi batzuk betetzeko.</p>	<p><i>Esto es, obligación de avisar de la fecha prevista para llevar el ganado al comunal, notificar todas aquellas causas que hagan variar lo indicado en la declaración (incidencias sanitarias, bajas laborales...), estar al corriente de las obligaciones sanitarias u otros aspectos que figuren en la citada declaración.</i></p>
<p>4.- KOMUNALEAN GUTTIENEZ ALHATU BEHARREKO ZENBATEKOA</p>	<p>4.- REQUISITOS DE PASTAJE MÍNIMO</p>
<p>NPB hektareen onuradun izateko, larrean edo bazkalekuetan gutxieneko egun kopuru bat eskatuko da.</p> <p>Horrela, behiek eta ardiek gutxienez bi hilabete eta erdi eman beharko dituzte komunalean.</p> <p>Zaldi-aziendarentzat, gutxienez 4 hilabeteko epea ezartzen da.</p> <p>Animalia bera ezingo da bi aldiz zenbatu (bata larrean eta bertzea bazkalekuan). Baina epea zenbatzeko, kontuan hartu ahal izanen da itxitura komunal bateko egonaldiaren eta larreko denboraldi baten batura.</p> <p>Bazkalekuetan ganadua basozainen presentzian sartuko da.</p> <p>Sartzeko egunak Ordenantzetan daudenak izanen dira, eta horiei, kasu bakoitzeko hurrengo larunbata gehituko zaie.</p>	<p><i>Para poder ser beneficiario de las hectáreas PAC, se exigirá un periodo mínimo de pastaje en monte abierto y-o cerrados comunales.</i></p> <p><i>Así, las vacas y ovejas deberán permanecer un mínimo de dos meses y medio en el terreno comunal.</i></p> <p><i>Para el ganado caballar, se establece un periodo mínimo de 4 meses.</i></p> <p><i>Un mismo animal no podrá computar dos veces (una en monte abierto y otra en cerrados comunales). Pero para el cómputo del plazo, podrá tenerse en cuenta la suma de la estancia en un cerrado comunal mas un periodo en monte abierto.</i></p> <p><i>Se advierte que las entradas de ganado en los cerrados comunales serán en presencia de los guardas forestales.</i></p> <p><i>Los días de entrada seguirán siendo los habituales recogidos en las Ordenanzas del Valle y a ellos se añadirá en cada caso, el sábado siguiente.</i></p>

<p>5.- HEKTAREAK ESLEITZEKO MUGAK JARTZEA</p>	<p>5.- ESTABLECIMIENTO DE TOPES EN ADJUDICACIÓN DE HECTÁREAS</p>
<p>200 hektareako muga ezartzen da eskatzaile bakoitzeko.</p>	<p><i>Se establece un tope máximo de 200 hectáreas a adjudicar a las personas o sociedades solicitantes.</i></p>
<p>6.- DEKLARAZIOA EZ BETETZEA</p>	<p>6.- INCUMPLIMIENTOS</p>
<p>Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69-4 artikularen arabera.</p> <p>"Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den edozein datu edo informazio zehaztugabea, faltsua edo funtsezkoa ez bada, edo administrazio eskudunari erantzukizunpeko adierazpena, deklaraturakoa bete dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa edo komunikazioa aurkezten ez bazaio, ezinezkoa izango da eragindako eskubidea edo jarduera gauzatzeko jarraitzea egitate horien berri izaten den unetik aurrera, hargatik eragotzi gabe gerta litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak".</p> <p>Dagozkion instantziei jakinaraziko zaie.</p>	<p><i>Conforme al artículo 69-4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.</i></p> <p><i>“La inexactitud, falsedad u omisión, de carácter esencial, de cualquier dato o información que se incorpore a una declaración responsable o a una comunicación, o la no presentación ante la Administración competente de la declaración responsable, la documentación que sea en su caso requerida para acreditar el cumplimiento de lo declarado, o la comunicación, determinará la imposibilidad de continuar con el ejercicio del derecho o actividad afectada desde el momento en que se tenga constancia de tales hechos, sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar”</i></p> <p><i>Se dará conocimiento a las instancias correspondientes.</i></p>